

# Topikoak erdi ustel

**Txikitatik entzun behar izan ditugu hainbat gomendio, hainbat topiko, gerora denborak gezurtatu dituenak.**

Irratsaio bateko elkarrizketa batetik abiatuko gara, txikitandik entzun ditugun topikoei buruz aritzeko.

Jarduera honetan ariketa hauek egin ditzakezu:

- Topiko bati buruz egia den ala ez pentsatu; ondoren, irratsaio-sarrera entzun erantzuna jakiteko.
- Irratsaioa entzun eta galdera bati erantzun.
- Topikoen esaldi-zatiak lotu.
- Topikoak berridatzi aginduak edo aholkuak emateko beste forma gramatikal batzuk erabiliz: aditzak (baldintza, agintera, behar), bestela, -(e)z gero
- Beste topiko batzuk komentatu lagunekin



## Audio-sarrera entzuten



Irratsaio entzun aurretik, pentsatu ondoko galderaren erantzuna. Segidan, entzun irratsaioaren sarrera labur hori eta ea bat datorren zuk pentsatutakoarekin.

**Laranja-zukuak zenbat denbora pasatu eta gero galtzen du C bitamina?**

- 10 minutura
- Ordubetera
- 12 ordura



[http://www.ikasbil.eus/c/document\\_library/get\\_file?uuid=4a156f7c-0e90-42cb-9b03-451a7593fa71&groupId=10138](http://www.ikasbil.eus/c/document_library/get_file?uuid=4a156f7c-0e90-42cb-9b03-451a7593fa71&groupId=10138)

## Entzun irratsaioa

Orain entzun irratsaioaren jarraipena eta erantzun galderari.

**Idoia Torregararen ustez, nork asmatzen ditu horrelako topikoak?**

- Politikariek
- Gurasoek
- Zientzialariek
- Tradizioak



[http://www.ikasbil.eus/c/document\\_library/get\\_file?uuid=2ba695fd-e7db-4a8c-8fcf-216a977555a9&groupId=10138](http://www.ikasbil.eus/c/document_library/get_file?uuid=2ba695fd-e7db-4a8c-8fcf-216a977555a9&groupId=10138)

## Esaldi zatiak lotzen



[http://www.ikasbil.eus/c/document\\_library/get\\_file?uuid=dc467068-d6f1-4d82-a551-fd5c645778a1&groupId=10138](http://www.ikasbil.eus/c/document_library/get_file?uuid=dc467068-d6f1-4d82-a551-fd5c645778a1&groupId=10138)

Lotu topikoak adierazten dituzten esaldi-zati hauek. Nahi baduzu, entzun berriro irratsaioa.

- |                                       |  |
|---------------------------------------|--|
| A) Hartu lehenbailehen laranja-zukua, | 1) bestela koman sartu daitezke.                     |
| B) Jan ondoren,                       | 2) burua handituko zaizu.                            |
| C) Alkohola hartuz gero,              | 3) gauean pixa egingo duzu ohean.                    |
| D) Ogi asko jaten baduzu,             | 4) sudurra haziko zaizu.                             |
| E) Suarekin jolasten baduzu,          | 5) txikia geratuko zara.                             |
| F) Mukiak behatzekin kenduz gero,     | 6) bestela bitaminak galduko ditu eta.               |
| G) Somnanbuluak ez dira esnatu behar, | 7) ez bainatu digestioa egiten 2-3 ordu pasatu arte. |
| H) Zigarroak errez gero,              | 8) gorputzaren tenperatura jaitsi egiten da.         |
| I) Zerbezak eta oilaskoak             | 9) titiak puzten ditu.                               |

## Topikoak berridazten eta komentatzen

Begiratu aurreko ariketako topiko batzuei. Erreparatu ageri diren forma gramatikalei:

- Ez bainatu digestioa egin arte.
- Suarekin jolasten baduzu, gauean pixa egingo duzu ohean.
- Mukiak behatzekin kenduz gero, sudurra haziko zaizu.
- Somnanbuluak ez dira esnatu behar, bestela koman sartu daitezke.

Konturatuko zinenez, esaldi horiek aholkuak edo aginduak dira, eta horretarako erabiltzen diren formak ageri dira: **aditza aginteran, aditza+behar, baldintzazko esaldiak (ba-, -(e)z gero), bestela....**

Aurreko ariketako topiko horiek berridatziko al dituzu beste modu batera, parentesiko formak erabiliz? Ariketa egin aurretik, begiratu ondorengo ereduari, erreparatu nola berridazten diren forma gramatikala aldatuz gero: batzuetan mezu bera emateko, aldaketa bat baino gehiago egin behar dira:

- Ogi asko jaten baduzu, gizendu egingo zara.
- Ogi asko janez gero, gizendu egingo zara.
- Ez da/duzu ogi askorik jan behar, bestela gizendu egingo zara.
- Ez (ezazu) jan ogi askorik, bestela gizendu egingo zara.

1 Hartu lehenbailehen laranja-zukua, bestela bitaminak galduko ditu eta. (**behar**)

---

2 Jan baduzu, ez bainatu digestioa egin arte. (**-z gero**)

---

3 Alkohola hartuz gero, gorputzaren tenperatura jaitsi egiten da. (**ba...**)

---

4 Suarekin jolasten baduzu, gauean pixa egingo duzu ohean. (**aditza aginteran**)

---

5 Ogi asko jaten baduzu, burua handituko zaizu. (**behar**)

---

6 Mukiak behatzekin kenduz gero, sudurra haziko zaizu. (**ba...**)

---

7 Zigarroak errez gero, txikia geratuko zara. (**aditza aginteran**)

---

8 Somnanbuluak ez dira esnatu behar, bestela koman sartu daitezke. (**-z gero**)

---

**Zuk ezagutzen al duzu antzeko topokorik? Komentatu lagunekin; saiatu hemengo forma gramatikalak erabiltzen.**

## Audio-sarrera entzuten

**Laranja-zukuak zenbat denbora pasatu eta gero galtzen du C bitamina?**

12 ordura

## Entzun irratsaioa

**Idoia Torregararen ustez, nork asmatzen ditu horrelako topikoak?**

Gurasoek

## Topikoak: berridazketa

- 1 Hartu lehenbailehen laranja-zukua, bestela bitaminak galduko ditu eta. behar laranja-zukua lehenbailehen hartu behar da, bestela bitaminak galduko ditu eta.
- 2 Jan baduzu, ez bainatu digestioa egin arte. -z gero Janez gero, ez bainatu digestioa egin arte.
- 3 Alkohola hartuz gero, gorputzaren tenperatura jaitsi egiten da. ba... Alkohola hartzen baduzu/bada, gorputzaren tenperatura jaitsi egiten da.
- 4 Suarekin jolasten baduzu, gauean pixa egingo duzu ohean. aditza aginteran Ez ezazu jolastu suarekin, bestela gauean pixa egingo duzu ohean.
- 5 Ogi asko jaten baduzu, burua handituko zaizu. behar Ez da/duzu ogi askorik jan behar, bestela burua handituko zaizu.
- 6 Mukiak behatzekin kenduz gero, sudurra haziko zaizu. ba... Mukiak behatzekin kentzen badituzu, sudurra haziko zaizu.
- 7 Zigarroak errez gero, txikia geratuko zara. aditza aginteran Ez erre zigarrorik, bestela txikia geratuko zara.
- 8 Somnanbuluak ez dira esnatu behar, bestela koman sartu daitezke. -z gero Somnanbuluak esnatuz gero, koman sartu daitezke.

## Esaldi zatiak lotzen

Hartu lehenbailehen laranja-zukua, (bestela bitaminak galduko ditu eta.)	
Jan ondoren, (ez bainatu digestioa egiten 2-3 ordu pasatu arte.)	
Alkohola hartuz gero, (gorputzaren tenperatura jaitsi egiten da.)	
Ogi asko jaten baduzu, (burua handituko zaizu.)	
Suarekin jolasten baduzu, (gauean pixa egingo duzu ohean.)	
Mukiak behatzekin kenduz gero, (sudurra haziko zaizu.)	
Somnanbuluak ez dira esnatu behar, (bestela koman sartu daitezke.)	
Zigarroak errez gero, (txikia geratuko zara.)	
Zerbezak eta oilaskoak (titiak puzten ditu.)	

## Transkripzioa

IDOIA TORREGARAI. Gaur hitz egitera etorri naiz gurasoek, eta batez ere gure garaian edo nire kasuan behintzat amek eta esaten zituzten esaldi mitiko horietaz. Eta etxe askotan horietako bat zen: "Hartu laranja-zukua bitaminak joango zaizkio eta".

MANU ETXEZORTU. Hori da: hartu lehenbailehen ze bitaminak galduko ditu laranja-zukuak.

IDOIA TORREGARAI. Eta konturatu naiz 2002. urtean Patricia Murphy ikertzaileak dagoeneko ondorioztatu zuela laranja-zukuko C bitamina, entzun ondo, 12 ordutan ez dela galtzen.

MANU ETXEZORTU. Kontxo, beraz, laranja-zukua egin eta 12 ordu dauzkagu hartzeko.

IDOIA TORREGARAI. Bai. Hau da, guk bizitza osoan ito beharrean edaten eta egun-erdia genuen edateko, Manu.

MANU ETXEZORTU. Sentitzen dugu gure gurasoek urteetan esan izan digutena hankaz gora botatzea baina ...

IDOIA TORREGARAI. Hola [Horrela] da.

MANU ETXEZORTU. Baina, aizue, zientziak agintzen du.

IDOIA TORREGARAI. Zientzia zientzia da.

MANU ETXEZORTU. Eta gu pertsona zientifikoak gara, ez? Zientzialariei sinesten diegu goitik behera.

IDOIA TORREGARAI. Hain zuzen ere, hari honetatik tiraka ba gaur mito falsuez hitz egitera etorri naiz.

MANU ETXEZORTU.- Oso ondo.

IDOIA.- Eta gaur luzatuko diegun galdera gure entzuleei, hain zuzen ere, hau da: Zein da bizitza guztian sinestu duzun mito hori eta azkenean gezurra zena.

MANU ETXEZORTU. Entzun duzue zein den Idoiaen galdera, e: Zein da bizitza guztian sinetsi duzun mitoa eta gezurra dena. Hori da gaur zera jendeari galdetzen dioguna. Batek dio, idatzi du, orainxe bertan idatzi du: "Laranja-galtzen duena zaporea da baina ez bitamina".

IDOIA.- Hori da, hori da. Hortxe.

MANU.- Hortxe. Jendea hasi da, e? "Gure gurasoek esaten ziguten 2 ordu egon beharra zegoela liseriketa [digestioa] eginez, uretan sartu aurretik". 2 gutxi iruditzen zait, guri 3 ordu jartzen zizkiguten.

IDOIA TORREGARAI. Hiru? Niri bi. Esaten dugunean, "goazen ardotxo bat hartzera gorputza berotzeko". Ba esaldi hori ez da batere zuzena. Hau da, alkoholak berotasun-sentsazioa ematen digu baina gorputzeko tenperatura jaitsi egiten du. Adi, beraz, muturra berotu eta segituan strip-tease egiten hasten diren horiekin.

MANU ETXEZORTU. Entzuleak animatu zaizkigu eta etengabe ari zaizkigu iristen mezuak. Mito bat: "Ez jolastu suarekin, gauean pixa egingo duzulako". Nonbait, hau asko errepikatzen zuten, ze beste batek ere gauza bera dio: "Ez jolastu pospoloekin, ohean pixa egingo duzulako gauean".

IDOIA TORREGARAI. Bai, egia.

MANU ETXEZORTU. Beste bat. Gurasoek esaten omen zioten ogia asko janez gero burua handitu egingo zitzaioa.

IDOIA TORREGARAI. Bai, hori gure aitak esaten zuen. Ja, ja, ja, ...

MANU ETXEZORTU. "Sekulako sudurra egingo zaizu, behatzarekin mukiak ateratzen badituzu", hori ere gure entzule batek entzun izan du. Patatak burua hazten duela.

IDOIA TORREGARAI. Bai, ogiak eta patatak. Bai, bai.

MANU ETXEZORTU. "Zigarroa errez gero, txikia geratuko haiz" esaten omen zioten honi umetan.

IDOIA TORREGARAI. Argi dagoena da horietako mito horiek nortzuek sortu dituzte? Ba gurasoek. Bueno, beste bat. Hau da: "Lo-ibiltariak edo somnanbuluak ez dira inoiz esnatu behar, ze, bestela, bihotzekoak edo koman sartuko dira". Bueno ba, lasai egon ze esnatuko bagenitu, lo sakon batetik ateratzea bezala izango litzateke.

MANU ETXEZORTU. Beste batek dio: "Zerbeza-aparrak titiak puzten ditu".

IDOIA TORREGARAI. Bai, eta kakahueteak ere bai.

MANU ETXEZORTU. Horrela diote. Eta garai batean esaten zen oilasko asko jateak ere titiak puzten zituztela.

IDOIA TORREGARAI. Zenbat dauden!

MANU ETXEZORTU. Askok daude.